

# FAQ. Ohiko galderak

## Zein onura ditu musika ikasteak?

Musika ikasteak **hainbat alor garatzen laguntzen du:**

- Adimen gaitasuna eta trebetasunak (ulermena, oroimena, entzumena eta analisisa, laburpena, norberaren eta besteen ebaluazioa, konparaketa eta lotura egitea...).
- Arazoei konponbidea bilatzeko eta abstrakziorako gaitasuna.
- Irudimena eta sormena.
- Afektibitatea era egokian adieraztea.
- Ahalegina, arreta, ordena eta diziiplina.
- Sentikortasuna.
- Zentzu kritikoa eta estetika.
- Psikomotrizitatea. Mugimenduen koordinazioa.
- Norberaren gorputzaren ezaguera.
- Dinamika orokorraren koordinazioa.
- Ikusmena, entzumena eta ukimenaren koordinazioa.

## Inoiz ez naiz Musika Eskolara joan, eta hasi egin nahi dut. Zer egin behar dut?

**Ikasle berrien matrikulazioa** horrela egin daiteke:

- Ekainaren 15etik 23ra.
  - Eskuratu matrikula orria [hemen](#), edo Musika Eskolako Idazkaritzan. Rondilla 34-B. Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:30etara, eta astelehenetan eta asteartetan 17:00etatik 19:00etara.
  - Aurkeztu matrikula orria Musika Eskolako Idazkaritzan, edo erabili [Zerbitzu telematikoak](#)

## Lehengo ikasturteko ikasle bat naiz, zer egin behar dut musika eskolan ikasten jarraitzeko?

Lehengo ikasturteko ikaslea bazara, **Inika aplikazioaren bidez** matrikula baieztatu dezazun ohar bat jasoko duzu. Ikasle izaten jarraitu nahi baduzu, **jarraitu** bidaliko mezuan adierakoa.

## Zein dira matrikulatzeko epeak?

Aurreko ikasturteetako ikasleentzat:

- Maiatzaren 30etik ekainaren 6ra ikasle guztiak, instrumentua aukeratu behar dutenak izan ezik.
- Ekainaren 7tik 14ra instrumentua aukeratu behar dutenak.

Ikasle berrientzat:

- Ekainaren 15etik 23ra.

Irailaren 1etik aurrera, kasu bereziak (4. zikloa) eta bakanteak betetzeko matrikulak, etorri ahala.

## Non gauzatu daiteke matrikula?

- Musika Eskolako Idazkaritzan. Rondilla 34-B. Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:30etara, eta astelehenetan eta asteartetan 17:00etatik 19:00etara.
- Erabili [Zerbitzu telematikoak](#)

## Zein dokumentu behar ditut matrikula egiteko?

Matrikula orriaz gain, adinaren egiaztagiria (N.A.N. edo jaiotza agiria) beharko duzu.

## Nola kudeatuko dira nire datu pertsonalak?

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 [Lege Organikoa](#) beteko da.

## Zenbat balio du matrikulak?

Indarrean dagoen ordenantza fiskalen arabera, hauek dira 2023-2024 ikasturteko [tarifak](#).

## Ordainketak noiz egin behar dira?

Ordainketak **hiru zatitan** egiten dira:

- Matrikula egiten denean: 1. kuota - % 60
- Azaroan: 2. kuota - % 20
- Otsailean: 3. kuota - % 20

## Prezio murrizketarik badago?

**Bai**, familia ugariantzat, guraso bakarrentzat eta diru sarreren arabera [prezio murrizketak](#) daude.

## Nola eskatzen da prezio murrizketa bat?

- Eskuratu prezio murrizketa eskaera orria [hemen](#), edo Musika Eskolako Idazkaritzan. Rondilla 34-B. Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:30etara, eta astelehenetan eta asteartetan 17:00etatik 19:00etara.
- Aurkeztu prezio murrizketa eskaera orria Musika Eskolako Idazkaritzan, edo erabili [Zerbitzu telematikoak](#)

## Nola jakingo dut matrikula onartua izan dela eta ikasturtea hasteko moduan naizela?

Ikasturtea hasi baino lehenago jakinarazpen bat jaso duzu zure helbide elektronikoan edo Inika aplikazioan.

## Behin ikasturtea hasi ezkeror, ezin badut jarraitu, itzuliko al didate ordaindutako matrikula?

Matrikula bertan behera uzteko eskaera egin daiteke [ondorengo arrazoiengatik](#), baina arrazoa edozein dela ere, prezio publikoaren %20a ez da itzuliko.

## Tolosan erroldatuta daudenak eta beste herrietakoak berdin ordaintzen dute?

Ez, bi tarifa daude. Tarifa orokorra bata, eta Tolosan erroldatutakoentzat bestea. Tolosan erroldatutakoaren tarifa, matrikulazio epearen amaiera (irailaren 30a) baino bi hilabete lehenagotik Tolosan erroldatuta dauden herritarrei aplikatuko zaizkie. Tolosaldean erroldatutakoei ere tarifa bera aplikatuko zaie, betiere jatorrizko udalek tolosarrei ere beren herritarrei aplikatzen dizkieten tarifak aplikatzen badizkiete musika eskolari dagokion ordenantza fiskaletako eranskinean zerbitzu guztietan.

## Zer da Inika aplikazioa?

Ordenagailuan edota sakeleko telefonoan erabili daiteken **aplikazio informatiko** bat da. Inika erabiliz lortuko duzu:

Ikasleei buruzko informazio akademikoa momentuan ezagutu ahal izatea, ebaluazioko notak, naiz kalifikazio partzialak edo irakasleen oharrak. Era berean hutsegiteei buruzko alertak instant batean jasoko dituzte mugikorrean. Aplikazio honi esker, familiek uneoro eskuragarri izango dute zentroko informaziorik garrantzitsuena: seme-alaben unean-uneo informazio akademikoa ezagutzekoa aukera izango dute eta ebaluazioko nota, kalifikazio partzialak, hutsegiteak, irakasleen oharrak, jakinarazpenak, oharrak, e.a. eskuragarri izango dituzte, baita, ordutegiak, ikastetxeko berriak, kontzertuak edo seme-alaben kanpoei buruzko informazioa ere.

## Nola funtzionatzen du Inika aplikazioak?

Musika Eskolak zure **erabiltzaile eta pasahitza pertsonalak** jakin araziko dizkizu.

Ordenagailua erabili zure ohiko nabigatzailea [Inikan](#) sartzeko.

Sakeleko telefonoan erabiltzeko "Play Store"-ra joan eta bilatu "Inika Gurasoak" izeneko aplikazioa. Aukeratu eta instalatu.

Aplikazioa irekitzean ikastetxea aukeratu beharko duzu, eta zure erabiltzaile eta pasahitza erabili saioa abiarazteko.

## Zenbat irauten du ikasturteak?

Irailaren 4tik ekainaren 21era.

Hemen duzu egutegi osoa.

## Eta, klaseak zenbat irauten dute?

Zikloa edota instrumentuaren arabera aldatu daiteke, baina ohiko iraupena klase bakoitzeko 45 minututakoa da.

## Klaseak non hartzen dira?

Musika Eskolaren egoitza Tolosako **Gorosabel eraikinean** dago, Rondilla kalea 34 B.

## Euskaraz edo gaztelaniaz dira?

**Euskara** da ohiko hizkuntza, baina irakasleak ikasleen beharretara egokitzen dira, beharrezkoa bada.

## Haurrak zein urteetatik aurrera hasi daitezke Musika Eskolan?

1. zikloan hasteko 4 urtetik aurrera eta 2. zikloan hasteko 7 urtetik aurrera. "harrera" 4, 5 eta 6 urtekoentzat tailerrak dira. Bertan jolasak, kantuak, entzumena eta erritmoa lantzen dira.

## Zenbat irauten dute 1. Zikloko haurren klaseak?

4, 5 eta 6 urtekoek astean bi klase izaten dituzte (astelehena eta asteazkena, edo asteartea eta osteguna) klase bakoitzak 45 minutu irauten du.

## Aukeratu al daitezke asteko egunak 4, 5 eta 6 urteko ikasleen eskoletarako?

4 urteko ikasleek astelehena-asteazkena edo asteartea-osteguna aukera dezakete, baldin eta ikasle-kopuruak bi talde sortzea ahalbidetzen badu.

5 eta 6 urteko ikasleek ezin dute aukeratu, eta taldeen beharren arabera esleituko dira txandak.

## Zein da Musika Eskolak duen eskaintza?

### 1. Zikloa "Harrera"

4, 5, 6, urtekoentzat tailerrak: jolasak, kantuak, entzumena, erritmoa.

7 urtetik aurrera "Aurre hasiera", musika hizkuntza eta instrumentuak ezagutu.

### 2. Zikloa "Hasiera"

Instrumentua, musika hizkuntza, taldeak.

### 3. Zikloa "Gotortzea"

Instrumentua, osagarriak, taldeak.

#### 4. Zikloa “Lehentasunezko jarduera”

Instrumentua, taldeak.

##### **Helduak**

18 urtetik aurrera: musika hizkuntza, taldeak eta instrumentua.

## Ikasi dezaket instrumentu bat jotzen solfeoa ikasi gabe?

**Ez** dago aukera hori. Musika hizkuntza ikasturte batez ikastea ezinbestekoa da.

## Nola aukeratzen dut instrumentua?

Lehenengo zikloan, 7 urtetik aurrera “aurre hasiera”, musika hizkuntza eta instrumentuen ezagutzan sakontzeko aukera izango dugu.

## Zein instrumentu daude aukeran?

Biolina  
Biola  
Biolontxelo  
Kontrabaxua  
Baxu elektrikoa  
Flauta  
klarinetea Oboea  
Saxofoia  
Tronpa  
Tronpeta  
Tronboia Bonbardinoa  
Tuba  
Perkusioa  
Txistua  
Dultzaina  
Pianoa  
Akordeioa  
Kantu bakarlaria

## Plaza kopurua mugatua da instrumentu bakoitzean?

**Bai**, instrumentu bakoitzerako plaza kopuru mugatu bat dago. Musika Eskolak, irakasleen lan ordu kopurua kontutan hartuta, eta ziklo bakoitzean izan diren ikasle matrikularen arabera, instrumentu bakoitzerako plaza kopuru jakin bat finkatuko du.

## Dauden plaza baino ikasle gehiago aurkezten badira instrumentu baterako zer gertatzen da?

Instrumentu baterako plazak baino ikasle gehiago baldin badaude, **zozketa** egingo da.

## Zein musika talde daude Musika Eskolan?

Akordeoiak  
Txistuak  
Dultzainak  
Bandak  
Korua  
Orkestrak  
Perkusioak  
Ganbara talde anitz

## Zer egin behar dut Musika Eskolako talde bateko kide izateko?